

| | |
|--------------------------|----------------------|
| ESP. KODEA. 2021DEEU0005 | |
| ESPEDIENTEA | |
| TITULARRA | ALDANONDO,ALBISU,ION |
| TOKIA | |

ALKATEAREN EBAZPENA

GAIA.- GOIERRIKO IKUSKARI S.L.ri (GOIERRI TELEBISTA eta GOIERRI IRRATIA) 2021 urteko dirulaguntz ematea.

AURREKARIAK

1.- Beasaingo Udalak 2003ko azaroaren 15ean GOIERRIKO IKUSKARI S.L.rekin hitzarmena sinatu zuen GOIERRI TELEBISTAREN jarduera diruz laguntzeko.

2.- Sinaturiko hitzarmenaren arabera, Goierriko Udalek biztanleko 2 €-kin lagunduko zuten GOIERRI TELEBISTAREN jarduera.

3.- Goierri Irratia GOIERRIKO IKUSKARI, S.L.-ren atala da. 2008tik aurrera emititzen ari dena eta 2015ean Udalbatzak biztanleko 1 €-ko dirulaguntza norminatibo bat onartu zuen GOIERRI IRRATIARENtzat. Urte horretatik aurrera urtero onartu dena.

4.- 2019an bi dirulaguntzak, hau da, GOIERRI TELEBISTARI eta GOIERRI IRRATIARI ematen zitzaiena batu ziren, eta ondorioz, bi emisio horiek egiten dituen GOIERRIKO IKUSKARI S.L.rentzat biztanleko 3 €-ko dirulaguntza aurreikusitako urteko aurrekontuan.

5.- Beasaingo Udalak 2021eko aurrekontuan GOIERRIKO IKUSKARI S.L.-ren (telebista eta irratia) aldeko dirulaguntza aurreikusitako du 0230.471.335.40.02 kontusailean, azaroaren 17ko, 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 22.2 a) artikuluan xedatutakoaren babespean.

6.- Betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak egunean dituela egiaztatuta geratu da.

Hau guztia ikusirik, eta apirilaren 2ko, 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 s) artikuluan xedatutako ahalmenaz baliatuz, Alkatea naizen honek, egun indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenak erabiliz

EBAZTEN DUT

Lehenik.- 2021 ekitaldirako, GOIERRIKO IKUSKARI S.L.-ren alde aurrekontuan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntza (41.640,00 €) onartzea.

Dirulaguntza hau bateragarria da helburu bererako beste Administrazio, edo erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako bestelako dirulaguntzekin, guztira jasotako fondoek diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez duten bitartean.

Bigarren.- Dirulaguntzen 1. zatiaren %50ordainketa (20.820,00 €) agintzea.

Hirugarren.- Dirulaguntzaren ordainketa aurreratua zuritzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira 2022ko apirilaren 30eko epemugarekin:

a) **Jarduketa memoria**, diru laguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena. Zer jarduera burutu den eta zer emaitza izan den adierazi behar dira.

b) Jardueran izandako **gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda**. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira.

Dirulaguntza ematen duen organoak egiaztatuko ditu egoki deritzan eta diru laguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzten duten frogagiriak. Horretarako, onuradunari eskatu diezaioke berak hautatutako gastu frogagiriak bidaltzeko.

Gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda ordezkatu ahal izango da, kontu auditoreen erregistro ofizialean hala izena emanda dagoen pertsona edo sozietate baten **txostenarekin**.

c) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten **bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda** xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Laugarren.- Ebazpen honen eta bidezkoak diren helegiteen berri ematea

Beasainen, 2021ko maiatzaren 28an

Leire Artola Ugalde
Alkatea

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

GITB dirulaguntza